

# Nazio Batuen Konferentziaren Aitorpena

## Ingurumenari buruzkoa

*Stockholm, 1972ko ekainaren 5etik 16ra*

Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, Stockholmen 1972ko ekainaren 5etik 16ra.

Ingurumena zaindu eta hobetzeko munduko herriei inspirazioa eta gida eskainiko dien irizpide eta printzipio komunen beharrari arreta jarritz.

Hurrengo aldarrikatzen du:

1. Inguruneak gizakia egin du eta, bera berean, gizakia da ingurunearen egilea. Inguruneak mantenu materiala eskaintzen dio eta intelektualki, moralki, sozialki eta espiritualki garatzeko aukera ematen dio.

Giza arrazak planeta honetan izan duen eboluzio luze eta bihurrian, gizakiak inguratzen dion guztia eraldatzeko ahalmena lortu du, zientziak eta teknologiak oso azkar eboluzionatu baitu. Modu anitzean eralda dezake eta eskala pentsaezinean.

Gizakiaren ongizaterako eta oinarritzko giza eskubideez (bizitzeko eskubidea barne) gozatzeko giza ingurunearen bi alderdiak (naturala eta artifiziala) funtsezkoak dira.

2. Giza ingurunea babestea eta hobetzea ezinbestekoa da eta herrien ongizatean, baita mundu osoko garapen ekonomikoan ere, eragina du. Ildo horri jarraiki, mundu osoko herrien premiazko nahia da eta gobernu guztien betekizuna.

3. Gizakiak esperientzia etengabe laburbildu behar du, baita aurkitzen, asmatzen, sortzen eta aurreratzen jarraitu ere.

Gaur egun, gizakiak inguratzen diona eraldatzeko duen ahalmena zentzuz erabiliz gero, garapenaren onurak herri guztietara irits daitezke eta, horrekin, beren existentziak goresteko aukera izango dute.

Oker eta ardurarik gabe aplikatuz gero, ahalmen berak gizakiari eta inguruneari kalte kalkulaezinak sortu ahal izango dizkio.

Gure inguruan gizakiak Lurraren herrialde askotan sortutako kaltearen aztarnak biderkatzen ikusi ditugu: urean, airean, lurrian eta izaki bizidunetan poluzioaren maila arriskutsuak; biosferako oreka ekologikoari dagokionez arazo larriak; baliabide ordezkaezinak suntsitu eta agortzea eta gizakiaren osasun fisiko, mental eta sozialerako urritasun larriak eta kaltegarriak, gizakiak berak sortutako ingurunean, bereziki, bizi eta lan egiten duen horretan.

4. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, ingurumen-arazo gehienek azpigarapenarekin zerikusia dute.

Milioika pertsona oraindik bizitza itxurosoa egiteko gutxienekoak ez ditu, elikagaiak eta jantziak falta zaizkio, ez du ez etxebizitzarik ezta heziketarik, osasunik eta higiene egokirik ere.

Horregatik, garapen-bidean dauden herrialdeek ahaleginak garapenerantz bideratu behar dituzte, ingurunea hobetzeko eta zaintzeko beharrak eta lehentasunak kontuan hartuta. Xede berdinez, herrialde industrializatuek esfortzua egin behar dute garapen-bidean dauden herrialdeetatik distantzia murrizteko. Herrialde industrializatueta, oro har, ingurumen-arazoek industrializazioarekin eta garapen teknologikoarekin zerikusia dute.

5. Populazioaren hazkuntza naturalak ingurunea zaintzeari buruzko arazoak sortzen ditu etengabe eta arazo horiei aurre egiteko arau eta neurri egokiak hartu behar dira.

Munduko gauza guztietatik, gizakiak dira preziatuenak. Eurek sustatzen dute gizarte-aurrerapena, gizarte-aberastasuna sortzen dute, zientzia eta teknologia garatzen dituzte eta bere lan gogorarekin giza ingurunea etengabe eraldatzen dute.

Gizarte-aurrerapenarekin eta produkzioaren, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenekin, ingurunea hobetzeko gizakiaren ahalmena gehitu egiten da egunez egun.

6. Historian gauden une honetan, mundu osoan gure ekintzak bideratu behar ditugu eta arreta handiagoa jarri behar diegu ingurunean izango dituzten ondorioei. Ezjakintsunarengatik edo ezaxolakeriarengatik, kalte izugarriak eta konponezinak sor daitezke Lurrean eta gure bizitza nahiz ongizatea horren baitan dago.

Ezagutza sakonagoarekin eta ekintza zuhurragoarekin, berriz, guretzat eta gure ondorengoentzat bizi-baldintza hobekiak lor daitezke, gizakiaren bizitzaren behar eta nahiekin bat datorren ingurunean.

Ingurunearen kalitatea gehitzeko eta bizitza atsegina lortzeko itxaropenak handiak dira. Gogoa behar da, baina, era berean, animu-sosegua, lan neketsua, baina sistematikoa. Naturan askatasun osora iristeko, gizakiak landu beharreko ezagutzak aplikatu behar ditu, harmoniaz ingurune hobea lortzeko.

Gizadiarentzat premiazko helburu bihurtu da oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat giza ingurunea defendatzea eta hobetzea. Ildo horri jarraiki, mundu osoan jada oinarritzakoak diren bakearen eta garapen ekonomikoaren eta sozialaren mugekin batera lortu behar da.

7. Helburu hori lortzeko beharrezkoa da hiritarrek eta komunitateek, enpresek eta erakundeek, maila guztietan, dagozkien erantzukizunak onartzea eta guztiok zeregin komunetan modu berean parte hartzea.

Baldintza guztietako gizakiek edo izaera desberdineko erakundeek etorkizuneko ingurumena moldatuko dute, bere baloreak ekarriz eta beren jarduerak batuz. Tokiko eta nazioko administrazioei dagokie, beren aginpideen barruan, ingurunean eskala handian aritzea.

Eremu horretan garapen-bidean dauden herrialdeek beren zereginak betetzeko, lagundu egin behar zaie eta baliabideak lortzearren nazioarteko kooperazioa beharrezkoa da. Inguruneari buruzko geroz eta arazo gehiagok ondorioak eskualdean edo munduan (nazioarte-mailan) dituzte. Beraz, nazioen artean lankidetzeta handia eskatzen dute eta guztion intereserako nazioarteko erakundeentzat neurriak hartu beharko dira.

Gizakiaren eta ondorengoen onuran ingurumena zaindu eta hobetzeko, Konferentziak gobernuari eta herriari ahaleginak batzea eskatzen die.

## Printzipioak

Guztion uste osoz hurrengoa adierazten da:

### 1. printzipioa

Gizakiak kalitatezko ingurunean askatasunaz, berdintasunaz eta bizi-baldintza egokiez gozatzeko oinarritzko eskubidea du. Horri esker, bizitza duina eta ongizatea lortuko du. Bestalde, derrigorrez babestu eta hobetu behar du ingurunea oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Hori lortzeko, apartheid izeneko, arrazagatiko segregazioa, diskriminazioa, zapalketa koloniala eta zapaltzeko eta menderatzeko beste moduak sustatzen edo iraunarazten dituzten politikak gaitzetsiak daude eta baliogabetu egin behar dira.

### 2. printzipioa

Lurraren natur baliabideak (airea, ura, lurra, flora eta fauna barne) eta, bereziki, natur ekosistemen lagin adierazgarriak zaindu egin behar dira oraingo eta etorkizuneko belaunaldien onurarako. Komeni denaren arabera, arretaz planifikatu edo antolatu beharko dira.

### 3. printzipioa

Bizi-baliabide berriztagarriak ekoizteko, lurraren ahalmena mantendu behar da eta, ahal izanez gero, berritu edo hobetu.

### 4. printzipioa

Gizakiak ardura berezia du flora eta fauna basatiaren ondarea eta habitata zentzuz zaindu eta administratzeko orduan, orain aurkako faktoreen konbinazioz arrisku larrian badaude.

Ondorioz, garapen ekonomikoa planifikatzean naturaren kontserbazioari (flora eta fauna basatia barne) garrantzia eman behar zaio.

### 5. printzipioa

Lurrean berriztagarriak ez diren baliabideak etorkizunean ez agortzeko moduan erabili behar dira. Halaber, gizadi osoak erabileraren onurak partekatu beharko ditu.

### 6. printzipioa

Substantzia toxikoen edo bestelako materien deskargak geldiarazi behar dira, baita beroa askatzea ere, inguruneak kantitateak edo kontzentrazioak ezin baditu neutralizatu. Ekosistemei ezin zaie kalte larri konponezina sortu. Poluzioaren kontra herrialdeetako herri guztien bidezko borroka defendatu behar da.

## 7. printzipioa

Estatuek itsasoen poluzioa saihesteko neurriak hartuko dituzte, substantziek gizakiaren osasuna arriskuan jartzen badute, izaki bizidunak eta itsas bizitza kaltetzen badira, eta itsasoaren legezko erabilerak kaltetzen edo zailtzen badira.

## 8. printzipioa

Gizakiari aldeko bizi- eta lan-giroa ziurtatzeko eta Lurrean bizi-kalitatea hobetzarren beharrezkoak diren baldintzak sortzeko, nahitaezkoa da garapen ekonomikoa eta soziala.

## 9. printzipioa

Azpigarapenaren eta natur hondamendien baldintzek ingurunean sortutako hutsak arazo larria dira eta konpontzeko modurik egokiena garapen arina da. Horretarako, laguntza finantzarioa eta teknologikoa transferitu behar da eta behar duten laguntza eskaini. Hala, garapen-bidean dauden herrialdeak egiten ari diren barne-esfortzua osatu ahal izango da.

## 10. printzipioa

Garapen-bidean dauden herrialdeentzat, prezioen egonkortasuna eta oinarritzko produktuen nahiz lehengaien ondorioz diru-sarrera egokiak lortzea, ingurunea antolatzeko oinarritzko elementuak dira, faktore ekonomikoak nahiz prozesu ekologikoak kontuan hartu behar baitira.

## 11. printzipioa

Estatu guztietako politikak garapen-bidean dauden herrialdeen oraingo eta etorkizuneko hazkuntza-ahalmena gehitzera bideratu beharko lirateke eta ahalmen horrek ez luke mugatu behar guztion bizi-baldintzak hobetzeko izatea. Ingurumen-neurriak aplikatzeagatik nazioan eta nazioartean ondorio ekonomikoei aurre egiteko, Estatuak eta nazioarteko erakundeek xedapenak onartu beharko lituzkete.

## 12. printzipioa

Ingurunea kontserbatu eta hobetzera baliabideak bideratu beharko lirateke. Kontuan hartu beharko lirateke garapen-bidean dauden herrialdeen egoera eta behar bereziak, baita beren garapen planetan ingurunea kontserbatzeko neurriak sor ditzaketen gastuak ere. Ildo horri jarraiki, eskatuz gero, nazioartean laguntza handiagoa eskaini beharko zaie teknikari eta finantzei dagokienez.

## 13. printzipioa

Baliabideen antolaketa arrazionalagoa lortzeko eta, bide batez, ingurumen-baldintzak hobetzeko, Estatuak beren garapen-planifikazioari dagokionez ikuspuntu osoa eta koordinatua izan beharko lukete. Hala, garapenaren eta giza ingurunea babesteko eta hobetzeko beharrezko artetako bateragarritasuna ziurtatuko litzateke biztanle guztien onurarako.

## 14. printzipioa

Garapen-betebeharren eta ingurumena babestu eta hobetzeko beharren artean sor daitezkeen diferentziak bateratzeko, planifikazio arrazionala ezinbesteko tresna da.

### 15. printzipioa

Giza kokaguneei eta urbanizazioari planifikazioa aplikatu behar zaio ingurunearen gainean ondorio kaltegarriak saihesteko eta gizartearen, ekonomiaren eta ingurunearen ikuspuntutik guztiontzako gehieneko onura lortzeko.

Ildo horri jarraiki, alde batera utzi behar dira menderatze kolonialistara eta arrazistara bideratutako proiektuak.

### 16. printzipioa

Herrialde batzuetan hazkuntza demografikoarengatik edo biztanleak gehiegi metatuak egoteagatik ingurunea edo garapena kaltetzeko arriskua dago. Besteetan, berriz, biztanle gutxi daude eta giza ingurumena ezin daiteke hobe eta garapena oztopatzen da. Kasu bietan oinarritzko giza eskubideak errespetatzen dituzten politika demografikoak aplikatu beharko lirateke. Halaber, dagokien gobernuek onartu beharko lituzkete.

### 17. printzipioa

Nazioko erakunde aginpidedunek Estatuetakoko ingurumen-baliabideen erabilera planifikatu, administratu edo kontrolatu beharko lukete, ingurunearen kalitatea hobetzeko xedez.

### 18. printzipioa

Garapen ekonomikorako eta sozialerako zientzia eta teknologia erabili behar dira, ingurunea mehatxatzen duten arriskuak aurkitu, saihestu eta aurre egiteko, ingurumen-arazoak ebazteko eta gizadi guztiaren onerako.

### 19. printzipioa

Ingurumen-gaietan hezi egin behar zaie, bai belaunaldi gazteei, bai helduei. Ildo horri jarraiki, pribilegio gutxien dituzten biztanleei arreta berezia eskaini behar zaie. Geroz eta zabalagoa izan behar du jende informatuaren tartea. Bestalde, ingurunea babesteari eta hobetzeari dagokionez, gizakiaren dimentsio osoan erantzukizuneko jarrera hedatu behar da indibiduen, enpresen eta taldeen artean. Halaber, funtsezkoa da komunikabideek giza ingurumenaren narriadura saihestea eta babesteari eta hobetzeari buruz informazio hezigarria hedatzea, gizakia alderdi guztietatik garatu ahal izateko.

### 20. printzipioa

Garapen-bidean dauden herrialde guztietan ingurumen-arazoei buruzko ikerketa eta garapen zientifikoa, bai nazioan, bai nazioartean sustatu behar da. Ildo horri jarraiki, lagungarria izan behar du informazio zientifiko eguneratua eta esperientziak libreki trukatzeko; garapen-bidean dauden herrialdeen esku jarri behar dira ingurumen-teknologiak, herrialde horietarako gehiegizko karga izan gabe, zabal hedatzeko.

## 21. printzipioa

Nazio Batuen Eskutitzarekin eta nazioarteko eskubidearen printzipioekin bat, Estatuak beren ingurumen-politika aplikatuz beren baliabideak ustiatzeko eskubide subiranoa dute. Halaber, hurrengo bete beharko dute: beren mugen barruko jarduerak edo beren kontrolpean garatutakoek bestelako Estatuari edo nazioko mugetatik kanpo dauden zonei ez kaltetzea.

## 22. printzipioa

Estatuak beren mugetan edo kontrolpean egindako jardueren ondorioz, beren mugetatik kanpo kalteak eragiten badituzte, poluzioaren biktimak direnentzat edo bestelako ingurumen-kalteak jasan dituztenentzat kalte-ordainak, baita erantzukizunak zehazteko ere, Estatuak lankidetzan jardun behar dute nazioarteko zuzenbidea garatzearen.

## 23. printzipioa

Nazio legeriarekin bat, zuzenean ingurumenarekin zerikusia duten erabakiak prestatzen ari direnean, pertsona orok, banan-banan edo taldeka, parte hartu ahal izango du eta ingurumena kaltetu edo narriatzen denean, kalte-ordaina jasotzeko beharrezko baliabideak erabili ahal izango ditu.

## 24. printzipioa

Pertsona orori dagokio eskutitz honek xedatutakoarekin bat jardutea. Pertsona orok, banaka edo taldean jarduten duenean, edo lana bizitza politikoaren esparruan garatzen duenean, Eskutitz honetako helburuak eta xedapenak lortzen saiatuko da.